


Autor e ilustrador: **LEO LIONNI**
Traducción: **KOLDO IZAGIRRE**

Kartonez kaieratua
40 orrialde margo betean
Adin gomendatua: 5 urtetik goiti
Eskuragarri:

- Euskaraz: "Frederick". Amets Egiteko Liburuak. ISBN 978-84-8464-506-1
- Gaztelania: "Frederick". Libros para Soñar. ISBN 978-84-933759-1-1
- Gallegoz: "Frederick". Tras os Montes. ISBN 978-84-8464-502-3
- Katalana: "Frederick". Kalandraka. ISBN 978-84-8464-550-4
- Portugesez: "Frederico". Livros para Sonhar. ISBN 978-972-8781-30-9

Salneurria: 15 €

FREDERICK



Negurako hazkurri biltzen ari da sagu familia bat. Denak saiatzen dira lanean, denak Frederick izan ezik. Itxura batean Frederickek ez du ezer egiten, baina bera ere lanean ari da, bestelako hazkurrien bilketan baina: eguzki printzak, margoak, berbak... Negua heldu delarik, hara non denak konturatzen diren sagu txiki honen lan poetikoa ezinbestekoa izan dela negu gogorra gozoan igarotzeko. Honela, ipuin honetan, Frederick den bezalako onartzen dute taldean, alegiako ttirritta ez bezala.

Leo Lionni gaur egungo album irudidunaren artista aitzindari handienetakoa da. *Frederick* honetan inurria eta ttirritaren alegian oinarritzen da, baina haren adiera morala aldatuz eta edukian sakonduz, haurren ipuinek ohi duten xalotasuna galdu gabe.

Ipuin honen gai handietako bat norberaren aurkitzea da, norbera izatearen ikastea eta onartzea. Frederick poeta da eta, bere moldean, lagungarri zaio taldeari, taldekidea da. Honela, artista ez da ageri nahita bazterrera egiten duen izakia bezala, baizik eta besteei beharrezkoa zaien pertsona gisa. Lanaren garrantziaren aurrean, *Frederick*-ek gogora arazten digu lastoaz eta intxaurrez gainera, badugula beste zenbait hazkurriren premia ere.

Haratago doa ordea. Zenbaiten iritziko, Frederick-ek berekoia ematen du, baina berekoikeria hori ez da bere buruarekiko leialtasuna besterik. Habia berean bizi diren lagunek, haserre egin beharrean, utzi egiten diote gogoeta egiten, errespetatu egiten diote daukan barnekoitasun hori, eta badakite guztien onurazko zerbait aterako duela bere mundu berezitik.

Norberaren askatasunaren garrantzia transmititzen die hurrei Lionnik: irakurleak babestuak sentitzen dira, bai baitakite saguek errespetatu egingo dutela Fredericken izateko era, irakurlerik zalantziatiena lasaitzeko moduan. Norberak izan nahi duena izaten saiatu behar du, besteek konprenitu egingo baitute.

LEO LIONNI (Amsterdam, 1910)

Diamantearen hiriburuan jaio zen, eta aita, hain zuzen, harri bitxi honen leuntzaile zuen. Ez ziren handikiro bizi hala ere. Osaba Piet, egileak berak esaten duenez, bere "heroia" izan zen haurtzaroan, artea, pintura, atelierretako giroa dastarazi egin ziolako. Musikan ere

zaletua zen, ama opera kantaria izana zen, judu batekin ezkondu aurretik.

Hain zegoen Lionni gaztetxoa artean murgildua, non, bederatzi urte zituela galdetu ziotenean zer izan nahi zuen, "Artista!" erantzun baitzuen hitzetik hortzera. Hala ere, oso beranduan argitaratu zuen haurrentzako lehen liburua, berrogeita bederatzi urte zituela, eta ustekabean, tren bidaiara batean bilobak entretenitzearren kolorezko papertxoak hartuta istorio bat kontari hasi zenean: *Horixka eta Urdintxo*.

Lehen Mundu Gerran gurasoek Estatu Batuetara jo zuten, eta bera aitonarekin eta artean eta artistetan zaletzen jarraitu zuen osaba koadro biltzaile batekin geratu zen. Hamabi urte zituela hartu zuen berak ere Estatu Batuetara, bizimodu berrira egokitzeko erraztasun handirik gabe: 29. urteko hondamendia, Bigarren Mundu Gerra eta Europara ezin itzulia, naziek ezarria zuten juduen jazarpengatik.

Heldutasunean, haurrentzako idazten hasi zenean, hain garrantzizkoa izan zuen haurtzaroa hartu zuen oinarri. Bere liburuetan, Lionnik bizitzari buruz leziatzen gaituzten fabula laburrak osatzen ditu, baina ez moralkerian, haurrak bere mundua aurki dezan laguntzeko baino, aukera seguru bat eskainiz. Begi bistakoa da Lionnik ez zituela alegia hauek nola halaka egin: gauzekin eta gertatuekin aurrenekoz topo egin zueneko garaietara itzultzen da.

Fikzio bakoitzean Lionnik egiten duen haurtzarora itultze hori bere umetako kontuetara etortzea da, mundu magiko eta berezira. Bere hitzetan, "Nonbait, nolabait, arteak beti islatzen ditu haurtzaroko sentimenduak". Leo Lionni 1999an hil zen.